

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Derio



Aurkibidea

Udalerria: Derio

Sarrera



Uribe merindadeko elizatea da Derio. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean, Mungia eta Laukariz; ekialdean, Zamudio; hegoaldean, Bilbo; eta, azkenik mendebaldean, Sondika eta Loiu. Asua ibaiak eta Untza erreka aurrera egiten dute bertako lurretan zehar. Derio 10,7 kilometro koadroko azalera du. Herrian 5.000 biztanle inguru bizi dira. Hirigune modernoa du, kokaleku berrien eraginez. Udalerrian ezarri diren enpresei esker izugarri hazi da, eta horrela, Txorierriko gunerik handiena bihurtu da.

Argazkia: Adam Cli

- **Biztanleak:** 5.100
- **Euskaldunak:** %27,6

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **31**
- Zintak: **34**
- Pasarteak: **127**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **9**
- Bideoak: **118**

Proiektuak

- Derioztarren euskara
- EibarOrg blog komunitateak 10 urte
- IRALeren Bizkaiera Bilduma
- Tximintx euskara elkarte

Hizlariak



Antonio Amondarain (1908)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.



Juanita Amondarain (1920)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.



Irene Asla Artetxe (1914-2014)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.

Juan Miguel Atxutegi Gerrickaetxebarria (1946)



Derioko Bekotexe baserrian sortua. 12 urterekin bertako seminariora joan zen eta bertan egon zen 21 urtera arte. 22rekin Erromara joan zen filosofia ikasketak egitera eta ostean Madrilan egon zen. Handik bueltatu eta filosofia ikasgaiko euskarazko irakasle bezala hasi zen beharrear. 1985. urtean politikan sartzea erabaki eta urte betez hezkuntzako delegatu bezala ibili zen Bizkaian eta Derioko alkate izan zen 16 urtez.

Maria Jesus Atxutegi Gerrickaetxebarria (1945)



Derioko Arteaga auzokoa bost anai-arrebako familia batean. Ama Sondikakoa zuen eta aita Deriokoa. Derioko eskolara joan zen. Baserrian egiten zuen behar abesbatzeko kide izandako honek.

Jesus Atxutegi Mota (1909)

Hargintza lanetan ibili zen hainbat urtean. Gernikako bonbardaketa ikusi zuen gerra sasoiari; hiru urtez ibili zen soldadu.



Txomin Aurrekoetxea (1924)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.

Asun Basaras (1957)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.

Asier Bilbao (1968)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.



Juan Bilbao (1924)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.



Evaristo Bolunburu (1928)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.



Juan Jose Egia (1926)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.



Juan Jose Eguskiza (1919)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.

Mirentxu Elorriaga Sangroniz (1938)

1938. urtean jaio zen Derion, kanposantua zegoen baserri batean, baina zazpi urte zituela baserria bota zuten kanposantua zabaltzeko, eta Santa Mami kaleko Urbitartera joan ziren bizitzera; bertan bizi izan da harrezkero. Ama Sondikako Mitxine baserrikoa zuen eta aita Zamudioko Beaskoetxekoa. Eskola bukatutakoan, bost urtez josten ikasi ostean, jostun lanetan aritu zen ezkondu arte. 1972. urtean, Derioko umeek ikasketak eta dotrina gaztelera hutsez egiten zituztela ikusita, herritar talde bat euskarazko katekesia eta eskolak ematen hasi zen, horien artean Mirentxu: 35 urtez aritu da katekesia euskaraz ematen. Fikan jaiotakoa, baina Derion bertan hazitakoa zuen senarra.



Maria Angeles Elorrieta (1965)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.

German Ibarluzea Aurre (1921-2015)



Derion jaio zen. Aita Deriokoa zuen eta ama zamudioztarra. Sei anai-arreba izan ziren eta bera bigarrena. Bertoko eskolara joan zen. Kirolaria eta igeltseroa izandakoa. DER-012 grabazioa 2004. urtean "Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa da; DER-025, ostera, 2011. urtean egindakoa.



Iñaki Ibarluzea Lopategi (1922-2012)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.

Luis Mari Landaluze (1959)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.

Isabelita Landaluze Zarandona (1945)



Derioko Astikenen jaio zen, baina umea zela Solokoetxera joan ziren bizitzera. Solokoetxe Loiuko lurretan, baina Derioko elizbarrutian eta herritik hurbil dago (elkarrizketa egin aurretik, kokalekua aldatu eta Derioko herrian sartu zuen aldundiak etxea). [Bere amari](#) egindako elkarrizketan parte hartu zuen Isabelitak.

Juan Jose Larrabeiti (1934)



Derioko Arteaga auzoan jaio zen. Beraien etxea berez Zamudioko lurretan dago. Gurasoak bertokoak zituen. 13 neba-arreba izan ziren, baina bostek baino ez zuten aurrera egin. Zamudioko eskola publikora joan zen, gertuago zegoelako. Futboleko jokatzeko zuten.



Lorenza Larrabeiti (1924)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.

Merceditas Latxaga Bidaurrezaga (1936-2013)

Vista Alegreko Zubi baserrian jaio zen, Udalez Derio da, baina elizaz Zamudio. Aita bertakoa zuen eta ama Ditzanekoa. Hiru neba-arrebatan nagusia izan zen. Amaren aldeko amamarenean hazi zen bertan bizi izan zen-eta. Umetatik hasi behar izan zen beharrea eta nahiz eta eskola gustuko izan, hamaiketarako etxera bueltatu behar izaten zuen behiak zaintzen. Eskolan bertan ikasi zuen josten, baina 16 urteaz jostile batez jarraitu zituen ikasketak. 14 urtetik ezkondu arte lantegian aritu zen; hala ere, sekula ez zuen baserriko bizimodua utzi eta horri buruzko eta erromeriei buruzko hainbat kontu kontatu zizkigun besteak beste.



Evarista Meabe (1924)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.



Irene Orroño (1938)

Derion jaio zen, San Esteban auzoko Landatxu baserrian. Aita Deriokoa zuen eta ama zamudioztarra. 6 anai-arreba izan ziren. 6 urterekin hasi zen eskolan 13 urtera arte. 10 urterekin "barriadara" joan zen. Josten ikasten ibili zen, baina ez zitzaion gustatzen. Beharrea hasi zen behin eskola utzita. Don Juanen etxean egiten zuen behar.



Eustaki Orroño Tellaetxe (1928-2016)

San Esteban auzoko Landatxu baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Zamudiokoa, biak baserritarrak. Sei neba-arrebatatik hirugarrena izan zen. 6 urtetatik 12 urtera arte eskolan ibili ostean, 16 urterekin Bilbora joan zen herriko familia batengana neskame lanetan; lau urtez egon zen bertan. 23 urterekin Vista Alegre aldera ezkondu zen, kale aldera, eta ordudanik bertan egin du bizimodua. Ia hiru orduko berriketaldian, umoretsu eta gogotsu kontatu zizkigun bere ume eta gazte garaiko kontuak, ohiturak, anekdotak eta beste hainbat istorio interesgarri.



Trini Orue-Etxebarria Elorrieta (1943-2017)

Derion jaio zen.





Hilari Petralanda (1928)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.



Txerra Rodriguez (1977)

Isabel Zarandona Bilbao (1916-2013)

Artzaion jaio zen 1916. urtean. Gurasoak ere derioztarrak ziren. Lau neba-arrebatatik hirugarrena izan zen eta etxean gelditu zen alaba bakarra, beste biak moja joan baitziren. Auzoko eskolara joan zen 12 urtera arte. Orduan ama bezala esne-saltzaile lanetan hasi zen: egunero joaten zen Bilboko Erriberan zuten postura bendeja eta esnearekin. Artzaiotik Astikenera joan ziren gerora bizitzera. 16 urte zituela ama hil eta etxeko martxa hartzea egokitu zitzaion. Gerra hasieran, aita Loiuko zinegotzia zen eta gainerako zinegotziekin, bederatzi guztira, preso hartu eta hiru urtetik gora egin zituen kartzelan, horietako hiru Cadizen. Tarte horretan etxea erre zien, baina jendearen laguntasunari esker etxebizitza eta ganadua onik ateratzea lortu zuten. Ama hilda, aita preso, neba eta mutil-laguna gerran... auzoko gizon bat eta etxeko morroiak ezinbestekoak izan ziren aurrera egin ahal izateko. Txakolina, sagardoa, eztia, gazta... egin izan dute beraienean. Ezkondu ostean, 1949. urtean San Estebaneko Solokoetxera joan ziren. [Bere alaba Isabelita](#) aritu zen kontu kontari berarekin batera. DER-018 zinta 2004. urtean "Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketakoa da.



Tomas Zubiaur (1921)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.



Sagrario Zubieta (1931)

"Derioztarren euskara" libururako egin zitzaion elkarrizketa 2004. urtean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Militarrei buruzko usteak

- **Hizlaria(k):** Atxutegi Gerrikaetxebarria, Juan Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Zubiri, Itsasne
- **Erref:** DER-023/003
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:02:07. **Bukatu:** 00:04:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- **Laburpena:** Seminarioan literaturako irakaslearekin izandako tirabira. Berak etxean entzunda zeukan militarrek nahiko ezjakinak zirela eta Franco militarra zenez, "¿ese ya sabe escribir o qué?" galdetu zion irakasleari. Irakaslea oso española egin zen eta izugarritzko errieta egin zion.

Transkripzioa

Eta han seminarioan bai badekoaz nik holako kontuak edo historia batzuk. Nonbaiten agertu dire. Han egon giñen ikasten eta guk euki gendun irakasle bat oso española zana. Eta emoten euskun literatura. Eta berak emon eban literatura eta estrofak eta autoreak eta genero literarioak eta rollo guztie. Eta agertzen da gaur eguneko literaturan, gaur egunekoa edo pasa dan mendeko literaturara eta non hasten dan esaten Francok idatzi zitula "las banderas rojas" edo. Nik ez nekien ezer. Eta ni aldeanotxue, ba. Ondo euskerea jakin barik eta... diñot, erdereak jakin barik ondo. Eta nik esan neutsen klasean: "Bueno, pero ¿ese ya sabe escribir o qué?". Hasi jatan kriston bronkea botaten: badakila zer dan gorriekaz bizitea eta bueno... la de dios! Ha izan zen "la de dios". Ta, bueno, gero ni joan nintzen neure arduradunarengana eta esan neutsen zer pase jaten klasean ta esan eusten: "Joan, joan olgetan hortik". Ta joan nintzen errekreora olgetan, baiña disgustoa kristolakoa. Bota eusten bronka bat... la virgen! Nik etxean iñoiz entzunda militarrek, ba, bueno, nahiko inultoak zirela eta. Eta Franco militarra zen lez, ba "Horrek, horrek zer idatziko dau horrek, ba?" Norbaitek idatziko otsan. Zeozer idaztekotan, norbaitek idatziko eutsan. Iñoiz entzunda be etxean, igual Pemán-ek edo, Jose María Pemán edo horrek idazten eutsazela diskursoak. "¿Ya sabe escribir ese?" ta kriston bronkea. Bueno, holan hasi giñen, ta gero holakoak euki genduzen bat edo bi edo.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Neba eta euskara (DER-019/004)

Bere nebak 4-5 urterekin ez zuenez hitz egiten, hizkuntza bakar batera pasatzeko esan zieten. Gaur egun dena euskaraz egiten du, baita seme-alabekin ere.

2. Aitaren lana eta baserria (DER-019/005)

Aitak marmolerian egiten zuen behar. Lan gogorra zen hura, batez ere, neguan. Marmolerian lan egiteari utzi zion eta Alfen lantegian hasi zen guarda gisa. Beti izan dituzte lurrak eta aitak lantegiko beharraz gain, baserrikoa ere egiten zuen. Oiloak, astoa, behiak... eduki zituzten. Ez zuten jenerorik saltzen, etxerako ziren. Aita hil arte eta baita ostean ere, behiak izan zituzten; hala ere, ez dute baserritar bizimodurik eduki. Berak ez du baserrian behar egin, gaztetan josten aritu zen.

3. Josteko ikasketak eta ibilbidea (DER-019/006)

Eskola bukatu zuenean, zerbait egin behar zenez, josten ikasi zuen. Hiru-lau urte josten ikasten egon zen eta urte bete bat, Bilbon ebaketa egiten. Ezkondu arte etxean josten zuen, baina ostean utzi egin zion. Ez zegoen lan egiteko beharrik eta senarrak ez zeukan gustukoa etxea jendez beteta egotea, beraz, ez zuen jarraitu, etxekoentzako eta Bilboko familia batentzako izan ezik. Andreentzako eta umeentzako arropak egiten zituen, baina batez ere, andrentzako. Bordatu ederrak egiten zituen eta oraindik batzuk gordeta ditu.

4. Errioxara egindako irteera (DER-019/007)

Ikastetxean egon zenean, lehenengo urtean asignatura gehienak hartu zituen. "Kolegiokoekin" Errioxara joan ziren egun batzuk egotera. Berak izara zuriak eramane zituen eta hauek zikindu zitzaizkion. Logroñoko denda batera joan zen, han oihalak kiloka saltzen zituztelako. Izarak eta mantak kanpotik ekarritakoak ziren: urdinak, marrazki bizidunekin...

5. Joskile lanetan (DER-019/008)

Gaur egungo Derioko geriatrikoan, mojen ikastetxe bat zegoen. Han eskuz bordatzen ikasi zuen. Batez ere, berarentzako josten zuen eta etxeko gortinak ere egiten zituen. Kanpokoentzako zerbait jostekotan arropak eta berokiak izan ohi ziren. Bilbon ebaketa ikasten zen, horretarako bi urte behar ziren. Berak beste lagun batekin hartzen zituen klaseak eta urte batean egin zuten, josten bazekitelako. Jantziak paperez josten zituzten.

6. Arropak eta moda (DER-019/012)

Gaur egun ez daude tela-denda asko, baina lehen bai. Berokiak painuzkoak ziren eta jantziak telazkoak. Lehen ez zen arropa erosten, dena etxean egiten zen. Derion joskile bat zegoen eta oso ona zen. Arropa maizten zenean, "la buelta" ematen zitzaion, hau da, barrukoa kanpora ateratzen zen berria utziz. Kasu honetan joskilearen beharra ordaintzen zen. Arropak asko irauten zuen, beroki bat gutxienez hiru urte. Arropa ez zen botatzen. Berokiei behealdean tela zati ezberdin bat jartzea jarri zen modan, beraz, laburra gelditzen zirenean oso ondo zetorren. Dendetan modan zegoena begiratzen zuen, modei jarraitu behar baitzien.

7. Gizonak eta arropa (DER-019/017)

Gizonak euren ezkontzako trajea egiteko eta alabaren ezkontzako trajea egiteko, jostunarenera joaten ziren. Trajea ez zen asko erabiltzen. Frakak "kutxilletute" erabiltzen ziren, hau da, partxeekin. Gizonak sindikatuetera joaten zirenean, oso ondo janzten ziren.

8. Diferentziak dirudunen eta pobreen artean (DER-019/018)

Dirudun eta pobreen arteko janzkeran bazegoen diferentzia, baina Derion ia denak langileak zirenez, ez horrenbeste.

9. Kanposantua (DER-019/028)

Orain dela gutxi Kanposantua atzerantz handitu dute. Bi horma daude gerra garaian fusilatu zituztenen izenekin eta lehen kanposantua horraino heltzen zen.

10. Seme-alabek eskolan erdaraz (DER-019/030)

Bere seme-alabak mojetara joan ziren eta han dena erdaraz egiten zen. Semeak lagun bat zeukan euskara hutsean egiten zuena eta oso pozik jarri zen semea ezagutu zuenean, berarekin euskaraz egin zezakeelako, hori bai, ezkutuan.

11. Katekesia euskaraz ematen hasi ziren; Kili-kili (DER-019/031)

Berak eta senarrak, don Tomasekin (herriko abadea) berba egin zuten jaunartzea euskaraz egin ahal izateko, ordura arte erdaraz egiten baitzen. Hasi zirenean, hamar ume inguru egon ziren. Ordu erdi eskola (euskarazko eskola) ematen zuten eta ordu erdi katekesia. Ez zegoen materialik euskaraz eta 'Kili-kili'rekin hasi ziren San Antoneko abadearen laguntzarekin. Abadea kartzelan sartu zuten eta Kili-kili gabe gelditu ziren. Bere senarra eta bera hasi ziren klaseak ematen. Gizonak euskara-eskola eramaten zuen eta berak katekesia.

12. Zergatik katekesia euskaraz (DER-019/034)

Katekesia euskaraz ematen hasi ziren, jaunartzea euskaraz emateko aukera izateko. Lehengoko baserritarrak, baserritarrak ziren, ez gaurkoak bezalakoak eta izate hori ez galtzeko, hasi ziren euskara irakasten. Materialik ez zeukatenez, katekesiko fitxak itzuli behar ziren eta lan handia egin behar izan zuten. Kili-kili fitxak euskaraz irakurtzen ikasteko erabiltzen ziren.

13. 'Kili-kili'ren hedapena (DER-019/037)

Apurka 'Kili-kili'ko katekesia beste herri batzuetan zabaltzen hasi zen. Urtean behin txango bat egiten zuten eta Derion autobus bat betetzen ez zenez, beste herrikoekin (Zamudio, Larrabetzu) bete behar zuten. Komunioa egin ostean txangoa egiten jarraitzen zuten. Eskola publikoa euskaraz ematen hasi zenean, 'Kili-kili'k ez zuen lehen bezala jarraitu. Hala ere, gure ohiturak zabaltzen jarraitu zuen. Klaseak elizan bertan izaten ziren astero eta erabiltzen zituzten itzulpenak bertoko euskaraz eginda zeuden. Urtero egiten zen txangoa aurrera eramateko, Udalak dirua ematen zuen, baina intereseko toki batera joateko. Txangoa egin baino lehen, herria ikustera joaten ziren, euria egiten baldin bazuen aterpe bat edukitzeko.

14. Laguntza ekonomikoak Kili-kilin (DER-019/039)

Kili-kili aurrera eramateko ez zegoen laguntza ekonomikorik. Fitxak ez ziren kobratzen eta Kili-kilik ere ez. Elizak ez zuen diru laguntzarik ematen baina ez zen behar, ez zegoen gasturik. Diru laguntza jasotzen hasi zirenean, elizari dirua ematen hasi ziren lokalaren truke.

15. Gasteizera txangoa (DER-020/002)

Kili-kilik urtean behin txango bat antolatzen zuen; eta, autobusa betetzeko, herri guztietatik joaten ziren. Behin, Gasteizera joan ziren guraso eta guzti. Gurasoak egon arren, eurek hartu zuten umeen ardura. Itzultzean, gauza bat zela, bestea zela, Jose, gizona, Gasteizen utzi zuten.

16. Jaunartzea Zamudion egin zuen (DER-020/004)

Berak jaunartzea Zamudion egin zuen , ezkontza eta konfirmazioa, ordea, Derion. Albokoak denak ziren Zamudiokoak, bere etxea eta albokoa izan ezik.

17. Denetarik egiten zuen: bizikleta eta komedia (DER-020/006)

Berak bizikleta eduki zuen, nahiz eta bere garaian ez izan normalena. "Ni bizikletarekin zuek kotxearekin baino zoriontsuagoa izan naiz" esan ohi zien beranduago bere seme-alabei. Albokoari umetan paralisia eman zion eta eskolara bizikletaz joaten zen beraiek lagunduta. Bera eta lagunak denetarik egiten zuten, adibidez, eskolan komedia. Beraientzako hori ona izan zen. Neska izatea ez zen trabarik izan bizikletan ibiltzeko.

18. Algortaraino bizikletaz (DER-020/007)

Behin, lagun batekin joan zen Algortara bizikletaz. Itzultzeko bero zela-eta, arazoak izan zituzten; eta berak lagunaren nebaren bila joan behar izan zuen, hark arreba laguntzeko. Uste du intsolazioa izan zuela. Santa Ana egun baten izan zen.

19. Hondartzara joateko prest (DER-020/015)

Modan zegoen morena egotea, baina zuri egotea ere polita zen. Hondartzara beti joaten ziren bainujantzia jantzita. Berak igeri egiten zekien. Bainu jantziak zelan ziren azaltzen du. Nivea krema erabiltzen zuten, hala ere, erretzen ziren. Bera ez zen erretzen morena delako. Bazeukaten lagun bat, zuri-zuria zena eta hondartzara heltzen zirenean erantzitako arropak lagunaren gainean jartzen zuten, erre ez zedin. Hondartzara joateko ileak kentzen ziren labanarekin. Aurrerago ezkoa erabiltzen hasi ziren. Hondartzara neska lagunak baino ez ziren joaten eta Deriotik jende gutxi joaten zen.

20. Lapak harrapatzen (DER-020/016)

Hondartza batean lapak harrapatzen, meniskoa apurtu zuen. Lapak gainean zituela laban egin zuen eta harrapatutakoa ez galtzarren belauna jarri zuen eta apurtu. Lapak aizto batekin hartzen zituzten, egosi eta jan.

21. Hondartzan arropa zelan aldatu (DER-020/018)

Hondartzan arropak aldatzeko, tela handi bat erosten zuten. Gehienetan bainujantzian itzultzen ziren etxera.

22. Sorosleak eta barkillo-saltzaileak (DER-020/020)

Hondartzan sorosleak eta barkillo-saltzaileak zeuden. Gaseosa freskoa saltzen zuten.

23. Hondartzako jokuak (DER-020/021)

Paletan jokatzeko zuten hondartzan. Seminarioko frontoian ere jokatzeko zuten erraketekin.

24. Autoa lehenegoz hartu eta gasolina barik (DER-020/024)

Bere senarra gaixotu zenean, lagunekin, tutoreekin eta denekin hitz egin zuten. Autoarekin irten zen lehenengo aldian, Santo Domingora joan zen eta gasolina barik gelditu zen.

25. Eskola eta ikasketak (DER-020/033)

Derioko herriko eskolara joan zen. Bere irakaslea doña Juana izan zen. Aurrerago, auzoko eskolara joan zen. Ez ziren jolas-orduetara mutilekin batera irteten. Ministroen izenak ikasi behar zituzten. Berari historia asko gustatzen zitzaion, zerbait ikasten zelako. Cara al Sol ere abesten zen.

26. Antzerkia eskolatik kanpo (DER-020/037)

Cara al Sol abesteaz gain ez zuten beste ezer kantatzen. Lucia andereñoarekin antzerkia egiten zuten, baina betiere eskolatik kanpo.

27. Eskolako inspezioak (DER-020/041)

Eskolan inspezioak izaten zituzten. Koadernoak garbi eduki behar zituzten. Berak etxean koadernoak lisatu egiten zuten, polito-polito uzteko. Oporrak oraingo legeaz, luzeak ziren.

28. Zapatuz ere eskolara (DER-020/043)

Eguen arratsaldetan ez ziren eskolara joaten, baina zapatuetan bai. Etxera joaten ziren bazkaltzera.

29. Euskararen ezberditasunak Txorierrin (DER-020/048)

Berak nahasketa handia dauka: ama Sondikakoa zuen eta aita Zamudiakoa: amabitxi-aitabitxiak, osterak, giputzak.

30. Gaurko euskara Derion (DER-020/052)

Orain ia ume guztiak dira ikastolakoak. Larrabetzun eta Zamudion etxeko euskara mantentzen da. Bere adineko euskaldun gutxi daude Derion.

31. San Juan kanta (DER-020/054)

San Juan kanta abesten ditu.

32. San Juan dantza (DER-020/055)

Berak ez zekien "Eper gainetan dantza" egiten, baina kantatzen digu.

33. Baserriaren egitura (DER-021/003)

Berak lo egiten zuen bi izekorekin. Ia baserri guztia kortarako erabiltzen zen. Beheko aldean bi logela eta sutea; goian logela bat. Berak sutean lapikoa eskegita eta behean sua ezagutu zuen; behea lurra bezalakoa zen. Baserria animalientzako zen: untxiak, behiak eta txerriak zituzten. Esnea ere saltzen zuten eta baserrian arrautzak eta esnea baino ez zen gelditzen; gainerakoa (frutak barne) plazan saltzen zen.

34. Bilboko plazara (DER-021/004)

Artxandatik Bilbora joateko ordaindu egin behar zen, gerora kendu egin zuten hori. Berak izeko laguntzen zuen plazara eta berarentzat jai itzela zen. Goiz-goizetik irten eta arrastian itzultzen ziren. Baserritar asko gurdiz eta astoz geltokiraino joaten ziren. Trena hartu eta bueltan berriro hartzen zituzten astoa-eta. Bere izeko oinez joaten zen.

35. Eskola garaiko olgetak (DER-021/005)

Bera joan zen lehenengo eskola etxe alboan zegoen, hilkutxak egiten ziren etxe batean. Jolas orduetan hilkutxetan ezkututzen zen. Gero Aldekonera joan zen eskolara eta berak ez zuen jolas-ordurik izaten, ordu horretan esneaz arduratzen zelako; arrastietan behiak jagoten zituen. Beti negarrez zebilen. Maisua ez zuen gustukoa jo egiten zuelako. Neskak eta mutilak bananduta zeuden. Billete, txapa eta ezkutaketara olgetan ziren. Billetetara sari bat irabazi zuen. Behin andereño batek Santo Domingora eramán zituen erre zen etxe bat ikustera. Baserritarrek erretzen ziren etxeak konpontzeko ahal zutenarekin laguntzen zuten.

36. Erliñoak bekatutzat zuen Trini (DER-021/006)

Mojekin beti harreman txarra eta erliñoarekin beti arazoak izan zituen ama ezkondu gabekoa izateagatik: bera bekatua zen. Ez zuen ulertzen zergatik ume askori ez zieten uzten berarekin ibiltzen. Mojek asko jotzen zuten; josten ikasi zuen haiekin.

37. Ezkondu gabeko ama (DER-021/007)

Ama bigarren aldiz haurdun gelditu zenean, ez zegoen ezkondata eta ezkontzera behartu zuten, garai horretan hori ez baitzegoen ondo ikusita. Berak ama haurdun zegoela esaten zuenean, jendeak barre egiten zuen eta ez zuen ulertzen zergatik. Berak jasotako gaitzespena ez zuen ulertzen.

38. Inguruko erromeriak (DER-021/009)

Erromeriak Derion eta Zamudioko plazan egiten ziren. Senarrarekin Asuara joaten zen. Orkestra batek jotzen zuen, tiketa erosi eta dantza egiten zen. Mutilek ordaintzen zuten.

39. Zinema eta mutil-laguna (DER-021/010)

Mutil-laguna Bilbokoa zen eta domekatar goizez zinemara joaten zen berarekin, lehenago mezara joan eta etxean garbiketak eginda. Bazkaldu ostean ere laster joaten zen kalera gero hamarretarako etxean egon behar zuelako. Batzuetan, Artxandara joaten zen oinez eta han mutil-lagunarekin txorizoa eta txakolina hartzen zuen. Aurrerago Enrikerekin, mutil-lagunarekin, Pagasarrira joaten zen eguna pasatzera, han Enrikeren aitak borda bat baitzeukan.

40. Garraiobideak: trenak, bizikleta eta motorrak (DER-021/012)

Asuara eta Mungiara joaten zen mutil-lagunarekin erromeriara trenez. Mungiako trenak ez zen Deriotik pasatzen. Leku gehienetara oinez joaten zen ez baitzeukan bizikletarik, baina Enrikek, mutil-lagunak, bazeukan. Aurrerago Enrikek motorrak erosi zuen, baina ez zion erabiltzen uzten.

41. Jaietako giroa (DER-021/015)

Loiuko eta Derioko jaietara jende pila bat joaten zen. Kamioiez joaten ziren: bata 9etan itzultzen zen; bestea beranduago helduekin. Azkeneko musika izaten zen onena. Orkestrako musikariak ia beti jende bera izaten ziren. Derioko dantza-taldeak egoten ziren eta batzuetan aizkolariak. Karameleroak ere ibiltzen ziren jaietan, hau da, gozokiak saltzen zituztenak. Berak bazeukan eskuzabala zen osaba bat, beti dirua ematen ziona.

42. Auzo-eskolako gorabeherak (DER-021/019)

Barriadara beste auzoko jendea joaten zen. Zamudioko eskolak oso urrun zeuden. Kurtso guztiak batera zeuden eta ilaratan antolatzen ziren. Andereño batek erregelaz jotzen zuen. Berak beti negarrez bukatzen zuen. Etxerako lanak amaitzeko zailtasunak edukitzen zituen arratsalde behiak jagoten zituelako; izekok laguntzen zion etxerako lanak egiten.

43. Eskola eta 'Cara al Sol' (DER-021/021)

Goian, eliza alboan, zapatuetan dotrinara joaten ziren: han gurutze handi bat zegoen eta don Tomas abadeagaz kantatzen zuten. Eskolan ere abesten zen.

44. Seminarioko abadeak eta kuartela (DER-021/022)

Seminarioko abadeak bere etxetik paseatzen ziren. Berak "cuervos" deitzen zien. Bazegoen seminarioan Lekeitioko osabaren lagun bat, askotan etxetik ibiltzen zena. Seminarioan be kuartel bat zegoen eta etxetik pasatzen ziren zaldiz praktikak egiten-edo.

45. Guardia Zibilak beti galdezka (DER-021/023)

Bikotean ibiltzen ziren eta etxetik galderak egiten pasetan ziren. Batzuetan goizez eta arratsalde. Asuan zeuden.

46. Arropa: beti gonak (DER-021/026)

Lehen ez zen arroparik erosten eta berokiei buelta ematen zieten. Ez zituen frakak erabiltzen eta mediak ezkutuan.

47. Gaztetako mutil-lagunak (DER-021/027)

Lezamako mutil-lagun pare bat izan zituen. Senarra Bilboko zen eta beste lagun batzuekin joaten zen Zamudiora dantza egitera. Berak josteko klaseak Bilboko Alde zaharrean hartzen zituen eta Enrikek, bere senarra denak, begia bota zion ordurako.

48. Francoren heriotza (DER-021/029)

Franco hil zenean, bere aitagarrebak ardo botila bat atera zuen, gordeta zuen erreserbakoa. Ireki eta garrastuta zegoenez, bota egin zuen: "hemos esperado tanto a que se muera...". Derion ez zen asko ospatu: jendea beldur

zen, frankista asko zegoen. Gainera, baserritarrak ez ziren arduratzen politikaz.

49. Lana eta kanpotarrak (DER-021/031)

Baserritik kanpo emakumeek batez ere josi egiten zuten. Berak ere Alfen egin zuen behar. Apurka-apurka jendea joan egin da herritik. Kanpotar asko etorri zen Deriora lan bila: maleta handiak zekartzaten eta familia osoa logela bakar batean bizitzen zen. Olarran eta Magefesan egiten zuten behar batez ere. Alfen emakumeek zein gizonek egiten zuten lan eta seminarioan tailer bat zegoen emakumeentzat.

50. Ezkontza eta eztei-bidaia (DER-021/033)

Derioko elizan ezkondu zen eta Artxandan ospatu zuten ezkontza. Enrikek, bere senarrak, furgoneta zeukan eta ezkonbidaiaiko lehen gaua Santanderren pasatu zuten. Gero, Galiziara eta Portugalera joan ezinik gelditu ziren gidabaimena iraungita eramateagatik. 2 asteko bidaia izan zen. Abuztuan ezkondu ziren. Berarentzat bidaia itzela izan zen hura. Hondartzatik ibili ziren.

51. Kangrejoak eta gereziak biltzen (DER-021/034)

Karramarro pila bat harrapatu eta egosita jaten zituzten. Siesta egin barik joaten zen karramarro bila: 50-60 inguru hartzen zituen, batez ere, goiko errekan. Alboko etxeko gereziak hartzen zituen, goxoagoak zirelako.

52. Ogia eta labesua (DER-021/036)

Labesuan (labeko sua) egiten zen ogia. Bere izekok labe txiki baten egiten zuen ogia, hango hiru baserrientzat (Garaigoiko, Garaibeko eta Garaierdiko). Artoa zegoenean, labe handian madariak eta sagarrak ere erretzen zituzten. Irina egiteko, artoa erre eta errotara eramaten zuten.

53. Esnea saltzen (DER-021/037)

Untxiak eta arrautzak etxerako izaten zituzten; hala ere, baten bat saltzen zuten inoiz. 9-10 behi zituzten eta esnea saltzen zuten. Berak Aldekoneko tabernan kantinek jasotzen zituen eta etxera eramaten zituen bueltan, jolas-orduan edota arratsaldean. Aurrerago amak asto bat erosi zuen eta berak jasotzen zituen. Kantina bakoitzak bere izena zeukan.

54. Garia, ortua, indaba... (DER-021/038)

Batez ere garia izaten zuten etxean. Gari-jotzeko makina pasatzen zen baserri guztietatik. Artoa eta indabak ere bazituzten. Baserritarren artean elkarri laguntzen zioten. Kanpako lurra ez zen oso ona, beheko lurra eta alboko lurrak, ordea, bai.

55. Txerria hil eta auzokoen artean banatu (DER-021/039)

Bi txerri hiltzen ziren urtero Gabonak baino lehenago. Txerria etxerako zen. Okela gatzetan sartuta mantentzen zen; gatza kendu, sikatu eta eskegi egiten zuten. Odolosteak egiten zituzten. Aza orri batean, odolosteak, saiheskiak eta abar sartzen zituzten eta auzokideei ematen zieten: batzuek dirua ematen zuten eta beste batzuek jateko jeneroa.

56. Urte berria iritsi aurreko ospakizunak (DER-021/040)

Urte berri egunean, baserrietatik gabon-eskean aritzen ziren. 12 bat batzen ziren kantatzeko: "Txarri belarri, dekonak ez dekonari, nik ez dekot eta eman niri". Txokolatea eta gailetak ematen zizkieten.

57. Esnea eta esnegaina (DER-021/041)

Gazta ez zuten egiten, ez zuten ardirik eta behi-esne gehiena saldu egiten zen. Esnegaina (nata) gorde egiten zen eta azukreagaz nahastuz bokadiloa egin. Gurina ez zuten egiten. Esnegaina bizkotxoak egiteko ere erabiltzen zen. Berak denetarik jaten zuen.

58. Zaldiak eta idiak (DER-021/042)

Ez zuten zaldirik ez idirik. Zekorrek saldu egiten ziren diru gehiago ematen zutelako. Behi zaharrak eta esne gutxikoak soroan lan egiteko erabiltzen ziren.

59. Bi kanta (DER-021/045)

Bi kanta abesten ditu. Ohitura izan da etxean umeei kantatzea.

60. Ahizpak zaintzen (DER-021/046)

Bera ahizpak baino zaharragoa zenez, haiekin jolasten zen eta zaindu egiten zituen. Ahizpa bat arroparekin lepoan lotzen zuen ez jausteko bera jolasten zen bitartean. Behin etxeko portalean ahizpa jausi zitzaion lepotik. Aurrerago auzokide batek kanasta bat eman zion eta handik aurrera umea hor sartuz libreago sentitzen zen. Ahizpa gazteena jaio zenean, berak ia 19 urte zituen eta senarrarekin eramaten zuen paseatzera.

61. Zuzenbidea ikasten hasi eta filosofia ikastea erabaki (DER-023/005)

Seminarriotik irten eta Madrilera joan zen lanera, obra batean. Gero, unibertsitatera sartzeko probara aurkeztu zen eta gainditu egin zuen. Zuzenbidea ikasten hasi zen, baina ez zen bere gustukoa, epaiketa batean ikusi baitzuen zelan erabiltzen ziren lekukoak. Erromara joan eta han filosofia ikasten hasi zen. Urte baten buruan Madrilera itzuli zen.

62. Umetan erdara gutxi (DER-023/007)

Baserritarrak ziren eta umetan amari laguntzen zion Bilbora bandeja eramaten. Begoñan etxola bat zegoen eta handik pasa behar izaten zuten. Behin han zeudela euskaraz egiten, guardia zibil batek "hable usted en cristiano" esan zion eta berak ia ezin egin erdaraz.

63. Amona eta erdara (DER-023/008)

Amonak ez zekien ia erdaraz egiten eta horren gainean anekdota bat kontatzen du.

64. Bi talde kultural: asfaltoak eta morokilak (DER-023/011)

Txikitari Derioko kaleetan euskara entzuten zen. Bi talde kultural zeuden herrian: goikoak eta behekoak. Goikoak: baserritarrak, han dena euskaraz egiten zen. Behekoak: dena erdaraz. Bere taldean goiko bi eta beheko bi zeuden. Behekoak, erdaldunak eta ikasiak, eta goikoak, beraiek. Palatan aritzen zirenean, asfaltoek (behekoak) morokilen (goikoak) kontra jokatzeko

zuten. Euskalduna izateak bere garaian gutxiago izatea esan nahi zuen. Gaur egun meritua da.

65. Euskaldunen egoera gaztetan (DER-023/013)

Seminariora joan zenean, berak ez zekien zer zen batxilergoa. Hasieran uste zuen gutxienez ministroa izatea esan nahiko zuela. Berak latin apur bat zekienez, lagun bati euskarara itzultzen zion uler zezan. Euskaldunak elkarri laguntzen ibiltzen ziren. Gaztetan euskaldunak bigarren mailakoak ziren, konplexu horiek edukitzen zituzten.

66. Zelan bultzatu euskararen erabilera (DER-023/021)

Eskoletan gertatzen dena ikusita, ondorio bat ateratzen du berak: gazteentzat euskara zigor-hizkuntza da eta erdara guztiz alderantzizkoa. Beraz, konplexuak kendu ostean, euskaraz ondo pasatzeko normaltasuna lortu behar da. Adibidez, kirola euskaraz gozatuz. Euskara normaldu egin behar da.

67. Derioko udaleko alkate izan zeneko lanak (DER-023/023)

1983an Txorierriko herri guztiak Bilbotik banandu ziren. 1987an bera alkate izan zenean, ez zegoen dirurik, ez azpiegiturarik, ez ezer. Errepideak asfaltatu egin behar ziren, uraren hodiak aldatu... Ikusten ez zen lan asko egin behar izan zuten.

68. Nazionalismoa desargetzeko eskaera (DER-023/025)

Madriren mezara joan zen eta horra non apaizak bota zuen: "Nazionalismoak desagertu daitezten...". Eta berak buruari bueltaka: "Nazionalismo espainola izan ezik?". Nazionalismoari buruzko gogoeta egiten du.

69. Euskarari emandako bultzada bera alkatea izan zenean (DER-023/037)

Bera alkatea izan zenean, egiturak sortzen hasi ziren. Egin zuten lehenengo gauza D eredia sartzea izan zen. Euskaltegi bat ere egin zuten eta euskararentzat laguntzak ematen hasi. Euskaltegietan ikasle kopuruaren arabera diru-laguntzak ematen zituzten.

70. Seminarioko bizimodua (DER-023/040)

Diziplina handia zegoen seminarioan eta nahiko gogorra zen bizitza, baina interesgarria, hala ere. 06:30ean altxatzen ziren eta 10:00etan oheratu.

71. Apaizak homosexualitatearen beldur (DER-023/042)

Seminarioan mutil asko ziren, arazoak ere bazeuden. Apaizen beldurra ikasleak homosexualak izatea zen. Ezin zuten elkar ukitu. Ikasleek ez zuten hori txarto ikusten, azken batean apaizek beldur hori izatea ere normala iruditzen baitzitzaien. Gaur egun homosexualitatea hobeto ikusita dago.

72. Erroman ikasten (DER-023/051)

Erroman lizentziatura eklesiastikoa ematen zuten. Ikasgai asko baliozkotzen zituzten. Berak italiarrik ez zekien baina azkar ikasten da. Alde handia zegoen, diktadura batetik irten eta libre hitz egin ahal izatera.

73. Askatasun politikoa Erroman (DER-023/053)

Erroman harrituta gelditu zen manifestazioak eta mitinak askatasunez egiten zirelako.

74. Erroman iritzi libreak (DER-023/055)

Erroman egunkariak saltzen zituzten lekuetan, egunkaria pintza batekin eskegita uzten zuten eta jendeak berri nagusiak irakurtzen zituen euren artean komentatuz. Zinearen inguruan ere ematen zuten iritzia. Modu naturalean egiten zen. Italian giro ona zegoen. Gizonak elkar besarkatzen ikusten zituzten edozein lekutan. Han normala zen.

75. Umetako gaiztakeriak (DER-023/064)

Lagunekin irten eta gaiztakeriak egiten zituzten. Mungiako bidean partiduak jokatzeko zituzten. Bidean kalabaza bat jartzen zuten, barrutik hutsituta kandela batekin eta begiak eginda. Beraiek arto artean ezkutatzen ziren auto bat igaro arte. Aldekoren zegoen iturri batetik deskaptableetan zetorren jendea bustitzen zuten.

76. Umetako jolasak (DER-023/065)

Umetan ez ziren joaten Bilbora. Marretan jokatzeko zuten. Joko pare bat azaltzen ditu.

77. Herriko eskolako zigor gogorak (DER-023/068)

Eskola publikoan, herri-eskolan, ilaran jarrita Cara al Sol abesten zuten. Francoren alde hildakoen oroimenez marmol bat zegoen eta harantz begira kantatzen zuten. Berak ez zuen inoiz letra ikasi. Zigorrak nahiko gogorak ziren, eta jo ere egiten zen. Eskola unitarioak izaten ziren, herriko guztiek ikasten zuten han, sei urtetik 14 urtera arte. Mutilak klase batean eta neskek beste batean egoten ziren. Arbelak tripode batean zeuden, ez hormaren kontra. Behin irakasle batek 14 urteko mutil bat jo zuen, arbelaren kontra joan eta apurtu egin zuen. Oso gogorra zen. Maisuak erregimenaren aldekoak ziren. Denak ziren erdaldunak.

78. Domeketako erromeria (DER-024/006)

Herriko plazan, domeketako erromerian, dantza egiten eta kantatzen ikasi zuten, baina erromeriara joan baino lehen, mezara joan behar zuten eta arratsaldeko lauretan arrosariora.

79. Primeran pasatzen zuten erromerietan (DER-024/008)

Zamudioko erromeriatik oinez itzultzen ziren kantatzen. Mutilekin dena erdaraz egiten zen eta neskek nahiko harroputzak ziren beraiekin. Ederto baten pasatzen zuten kalabazak ematen.

80. Mezako giro ona (DER-024/011)

Mezan oso ondo pasatzen zuten kantatzen eta honen ostean, parranda handia egiten zuten tabernaz taberna.

81. Lagunekin olgetan (DER-024/013)

Neskak sokara edota trukemera olgetan ziren. Musika ez zegoenean, aspertu egiten ziren ez baitzegoen zer egin. Neskak ez ziren tabernetan sartzen. Zineak 7 pezeta balio zuen.

82. Etxean beharrea (DER-024/015)

Etxean behar asko egin du (garbitzen, soloan...), baina hortik kanpo ez du lanik egin. Bere ahizpa 14 urterekin hasi zen lan egiten eta hiru mutilak ikasten ibili ziren. Berak zeukan etxeko ardura osoa. Esnea herritik banatzen zuen. Pisu handia eraman behar zuen, hamabi litro esku bakoitzean. Etxekoentzako ere bazkaria prestatzen zuen.

83. Metak egiten (DER-024/017)

Metak egiteko gurdian belarra ekartzen zuten, zapaldu, plegatu eta erditik palua sartu.

84. Gaurko beharra eta plaza (DER-024/018)

Berarentzako gaurko beharra ez da beharra, soloan lantzen dutena etxekoentzako baita. Berari plazara joatea ez zitzaion gustatzen, auzoko beste batzuei bai eta bere neba Andoniri ere bai.

85. Arropa garbitzen (DER-024/019)

Arropa errekan garbitu eta buruan eramaten zuen, egun osoko lana zen. Aurrerago, Sondikatik garbigailu bat ekarri zuten. Astean behin garbitzen zen arropa, ez ziren asko zikintzen.

86. Amerikanoaren autoa (DER-024/022)

Herrian "seiscientos" bat zegoen, Juan Hilario, amerikanoaren semearena. Medikiak "dos caballos" bat zeukan. Berak Juanen zeloak zituen, behar egiten ez zuelako eta beti dirua zeukalako. Neskak ez ziren tabernetan sartzen.

87. Baserriko atea zabalik (DER-024/028)

Etxean bi txerri hitzen zituzten urtero, beti zeukaten txorizoa eta solomoa. Pernila bi egunez uzten zuten errekan, ez zuen inork osten. Baserrietan atea zabalik uzten ziren. Ijitoak herritik ibiltzen zirenean, lapurretan ibiltzen ziren.

88. Gabonak (DER-024/030)

Gabonetan familia bakoitzak bere etxean jaten zuen, lehenengo platera azalorea izan ohi zen eta bigarrena, etxeko oilaskoa eta bisigua. Bilbon erositako turroia ere jaten zen. Mezara joaten ziren.

89. Gabon zaharra (DER-024/031)

Gabon zaharrea etxean afaltzen zen. Gero, parrandan irteten ziren. Emakumeek ardo gozoa hartzen zuten, mistela.

90. Elizako kanta (DER-024/035)

Elizako kanta bat abesten du.

91. Eskolan olgetan (DER-025/004)

Auzoko eskola hurbil zegoen eta nazionala ere bai. Aurrerago, auzoko eskola nazional bihurtu zuten. Hamabi urtera arte egon zen han. Baloiak oraingokoak bezalakoak ziren, baina puztu egin behar ziren. Esku pilotan ez zuten asko jokutzen, ez baitzegoen frontoirik. Neskek soketara salto egiten zuten. Batzuetan neskak zein mutilak elkarrekin ibiltzen ziren.

92. Idiekin beharrean (DER-025/005)

Hamabost urterekin idiekin lan egiten hasi zen; hau da, marmoldegietatik kanposantura idiekin marmola eramaten. Goizeko zortzietatik ordu batera lan egiten zuen.

93. Igeltsero (DER-025/006)

Hamazortzi urterekin igeltsero modura hasi zen beharrean. Kontratista batekin egiten zuen lan eta honek motorrez eramaten zuen lanera. Aurrerago, bagonetak konpontzeari ekin zion, baina gerrian min hartu zuen eta faxa ortopedikoa jarri behar izan zioten.

94. Faxe (DER-025/007)

Gerrian jarri behar izaten zuen faxa hagatxo eginda zegoen. Garestia zen eta neurria eginda. 62 urterekin jubilatuta egin zen eta ordura arte faxa erabili izan zuen.

95. 'Kirol ugazaba' (DER-025/008)

Hogei urterekin boxeoa ibili izan zen. Bilbon, konbate batean, arerioa sei bider gainditu zuen. Aurrerago atletismoa egin zuen eta hau dela-eta, soldaduskan Kirol ugazaba ezizena jarri zioten.

96. Erromeriak (DER-025/011)

Erromerietan "agarradue" egiten zen dantza. Neskek beraien artean dantza egiten zuten eta mutilak hurbiltzen zitzaizkien eurekin dantza egiteko eskatuz. Erromerietara joateko hobeto janzten ziren. Denetarik dantzatzen zuten: tangoa, paso doble...

97. Andrea eta lagunak (DER-025/012)

Andrea ezagutu zuenean, hasieran, emakumea bere lagunekin ibiltzen zen eta bera, bere lagunekin; horrela denak batera irteten ziren. Aurrerago bakarrik irteten hasi ziren. Ezkondu zenean, beste lagun bat ere ezkondu zen eta bi bikoteak elkarrekin joan ziren bidaiari.

98. Gerran lanean (DER-025/013)

Gerra sasoiari, berak 14 urte zituen eta lubaki (trintxera) batera lan egitera joan behar izan zuen. Hara, menditik zihoala, bonba bi bota zituzten eta denek korrika egin zuten ihes. Anaia bat eta bera Bilbora joan ziren izeko batenera, eta han gelditu ziren nazionalak sartu arte.

99. Bilbotik Deriora etxera itzultzen (DER-025/014)

Gerra garaian, Santo Domingotik oinez itzuli ziren Deriora eta bidean gorpuak ikusten zituzten. Etxera heldu zirenean, militarrek euren etxean zeuden eta han gelditu ziren zortzi egunez-edo. Gerraostean, jendea gose izan zen. Ez zen beraien kasua izan artoa eta indaba baitzuten.

100. Jakiak lapur ez zitzaten (DER-025/015)

Bi errota zeuden herrian. Gauean astoarekin joaten ziren errotrara. Artoa han uzten zuten eta hurrengo egunean, ikus ez zitzaten, berriz gauez itzultzen ziren irinaren bila. Bonba zulo batean indabak gordetzen zituzten eta belar sikuekin estali.

101. Sendabelarrak (DER-025/018)

Lepoko mina kentzeko txapelaz igurzten zuten lepoa eta gero, alkohola bota. Katarroa zeukatenean, eukaliptoa egosi eta sortutako lurruna arnasten zuten. "Sanates" egiteko bi belar mota zeuden, gizonentzako eta emakumearentzako, zabala eta estua. Belarrak josten ziren, berotu eta leku minduan utzi. Haginetako mina kentzeko tabakoa erabiltzen zuten, osterantzean bufanda bat berotzen zen eta kanpoaldetik jarri.

102. Bizikleta (DER-025/022)

Bere garaiko bizikletak astunak ziren. Bere anaiaren bizikletak 20 ogerleko balio izan zuen, denak ibiltzen ziren bizikleta horrekin. Aurrerago bakoitzak berea eduki zuen beharrera joateko.

103. Oinetakoak (DER-026/004)

Alpargatak erabiltzen zituzten, beltzak eta zuriak. Berak pare bat eduki ohi zuen. Asteburuetan abarkak erabiltzen zituzten. Seminariotik ibiltzen ziren eta han Anastasio izeneko gizon batek saskiak egiten zituen.

104. Don Juanen etxean beharrean (DER-026/005)

Goizeko 07:30ean lotzen zen bere lagunekin mezara joateko. Don Juanen etxean (herriko medikuaren etxean) ere egiten zuen behar. Denboraldi baten, Natiren etxera joaten zen josten ikastera. Ez zen ona josten.

105. Arropari probetxua ateratzen (DER-026/007)

Arropa ahizpa batetik bestera pasatzen zuten. Ahizpa batek Bilboko etxe batean egiten zuen behar eta horrek arropa asko ekartzen zion. Hamazortzi urterekin erosi zioten bere lehenengo berokia. Urriko lehenengo domekako prozesioan estreinatzen zen arropa.

106. San Esteban jaiak (DER-026/010)

San Estebanak ziren jai nagusienak, familia elkartzen zen ospatzeko eta denek batera bazkaltzen zuten. Bazkaldu ostean erromeriara joaten ziren.

107. Euskara eta faxismoa (DER-026/013)

Denek egiten zuten euskaraz auzoan, eskolan izan ezik. Eskolan, Cara al Sol kantatu behar zuten. Alkatea faxista hutsa zen eta behin andre bati "egun on" esateagatik, hurrengoan kartzelara eramango zuela esan zion.

108. Txarriboda (DER-026/017)

Ogia murriztuta zegoen eta olioaren ere bai. Urtean behin bi txerri hiltzen zituzten. Txarriboda egiten zuten, albokoak eta familia joaten ziren.

109. Gabonetako afaria (DER-026/019)

Gabonetan afaltzeko, aza, bisigua eta oilaskoa jaten zuten; familia elkartzeko zen. Ahizpek turroia eta txanpaia ekartzen zituzten.

110. Senarra eta ezkontza (DER-026/022)

Senarra erromeria batean ezagutu zuen, 16 urte zituela. Soineko zuriz ezkondu zen eta senarra trajeaz. Ezkontza etxean bertan ospatu zuten eta egun berean Erriberako merkatura joan zen mariskoa erostera. San Isidron ezkondu ziren.

111. Eskola (DER-027/002)

Zamudioko eskolara joan zen, parajeago zeukalako. Jaunartzea ere Zamudion egin zuen. Eskolan hainbat adineko mutilak klase berean egoten ziren eta neskek beste gela batean. Euren artean euskaraz egiten zuten, baina kontuz ibili behar zuten.

112. Futbolean, zapatak eta baloia (DER-027/003)

Futbola zeukan gustukoa, eta Acción Cátolican jokatu zuen. Alkateak dirurik ez zeukanez, falangeko kamisetekin irten behar zuten jokatzera. Baloiak astunak ziren, larruzkoak, buruarekin ematen bazenion zauria egiten zuten. Futboleko botak erabiltzen zituzten, tako handiekin eta klubak erositakoak. Soldaduskara joan zenean, han ere futbolean aritu zen.

113. Dantzan (DER-027/004)

Gaztetan, domeketan, futbolean jokatzen zuen eta horren ostean, dantza egitera joaten zen; baina txikitxoaren zenez, neskek ez zuten gustuko berarekin dantza egitea. Dantza egiten bakarrik ikasi zuen. Tangoak, "agarrauak", vallsak... ondo ikasi zituen.

114. Herritarrak eta futbola (DER-027/009)

Hogeita lau urtera arte jokatu zuen futbolean. Taldeko "komodina" zen, posizio guztietan jokatzen baitzuen. Apurtu arte, Sondika, Derio eta Mungiaren aurka izaten ziren partidak eta herritarrak joaten ziren ikustera. Animatzeko erdaraz abesten zen.

115. Errekak, arrantza eta bainua (DER-027/013)

Txorierriko erreketan arrantza egiten zen. Euri asko egiten zuenean erreketan aingirak aurkitu ahal ziren. Erreketako ura oso garbia zen eta udetan han hartzen zuten bainua.

116. Santa Agedako kanta eta bertso bat (DER-027/015)

"Aintzaldun daigun" Santa Agedako kanta eta bertso bat abesten ditu.

117. "Txarri belarri" abestia (DER-027/018)

Ez du kantarik gogoratzen, berak ez duelako asko kantatu. Irenek, emaztea, "txarri belarri" kanta botatzen du.

118. Euskara batua eta euskalkiaren lekua (DER-034/001)

Euskalkia eta euskara batuaren arteko harremanaz berba egiten du.

119. Eskola gutxi (DER-034/002)

Umea zela, Mungiatik etortzen ziren irakasleak. Oso irregularra izaten zen eskola garaia, ez egunerokoa. Justukoa ikasi zuen. Orduan diru asko behar zen ikasketak egiteko. Oraingoarekin alderatzen du.

120. Durango eta Urkiola, munduaren azkena zirenekoa (DER-034/004)

Durangora eta Urkiolara joatea ilusioz bizitzen zuten, baita txerri hiltzea ere. Ezkondutakoan bidaia Durangora egitea gauza handia izaten zen. Oraingo bizimoduarekin alderatzen du. Ez du elkarlaguntzarik ikusten.

121. Garai bateko Derio (DER-034/007)

Derio Mungiakoa zen lehen. Bere aitita auzo alkatea izan zen. Orduko mugak aipatzen ditu. Zamudiorekiko harremana azaltzen du. Diktadura garaian bereziki, oso zigortua izan zela herria dio.

122. Orduko erromeriak (DER-034/013)

Gazte garaian ogerleko batekin ibiltzen ziren. Ez zuten garraioan gastatzen, oinez ibiltzen ziren. Erromerian panderoa, soinua, dultzaina izaten ziren. Neskak arrosarioa errezatzera joaten ziren aurretik. Mutilek neskek baino gehiago ordaintzen zuten.

123. Trajearekin dotore (DER-034/014)

Tabernan soinujolea egoten zen eta bertako alabek ederki dantza egiten zutela dio. Haiekin aritzen ziren dantzan. Trajea janzten zuten. Traje berria egiten zuten mutilek prozesioan amabirjina eramateko.

124. Harrobiaren ibilbidea (DER-034/017)

Harrobian lan egin zuen zazpi urtez. Zelan lan egiten zuten azaltzen du. Egun batez, harri pila handia jausi zen eta lagatzea erabaki zuten.

125. Gerratik itzuleran, harrobia martxan (DER-034/019)

Hiru urte egin zituen gerran soldadu. Handik itzuleran, harrobia martxan jarri zuen, anaiarekin batera.

126. Dinamita bizikletaz garraiatzen (DER-034/020)

Bizikletaz dinamita eramaten zuen harrobira, tranbian ez zutelako lagatzen. Hamabostean behin guardia zibilek kontrola egiten zieten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com